2. Se considerarán Aplicaciones o Herramientas de Uso Común las referidas a infraestructuras básicas relacionadas con Internet, las aplicaciones horizontales diseñadas como plataformas únicas de utilización conjunta por las entidades que conforman el ámbito de aplicación de este Decreto, y aquellas otras que incidan en una mayor y mejor integración y compatibilidad de los portales, de los contenidos y de los servicios.

A tal efecto, la Dirección de Informática y Telecomunicaciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública dictará acuerdo por el que se declarará una determinada aplicación o herramienta de uso común en la Red de Portales.

3. A la entrada en vigor de este Decreto, tendrán la consideración de Aplicaciones y Herramientas de Uso Común las relacionadas en el Anexo III.

*Artículo 20.*– Libro de estilo.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren atari sareko estilo liburuak nabigazioa, edukiak, zerbitzuak eta ikus-itxura homogeneizatzeko oinarrizko arauak biltzen ditu, zeintzuk sarearen irudi komuna eta sarea osatzen duten atarien identitate komuna bermatzen baitute eta atarion nabigazioa eta erabilgarritasuna errazten baitute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia ereduaren zuzendaritza eskuratuta duen organoak gertatuko du estilo liburua, eta organo hori atxikita duen Saileko titularrak onartuko du. Liburua gertatzen sareko atarietako arduradunek parte hartzea sustatuko da.

2.– Estilo liburua nahitaez bete beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren atari sareari atxikitako web orri, eduki edo zerbitzu guztiek, eta horrek duen eragina eta betetze-modua ere bertan daude jasota.

3.– Estilo liburua bakarra egongo da sareko atari guztietarako. Atari guztietarako aplikatzekoak diren arauek eta atari bakoitzerako zehaztu daitezen arau partikularrek osatuko dute. Arauok bateragarriak izango dira sareko atari guztiek betetzeko zehaztutako arauekin. Atari bakoitzaren beren-beregiko arauak eranskin legetxe atxikiko dira estilo liburuan.

Sailetako atariek, sareko atari guztietarako diren arau estilo komunari buruzkoak betetzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren ikur korporatiboa jasoko dute, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

*21. artikulua.–* Estilo liburuaren edukia.

1.– Honako hauek jasoko ditu, behintzat, estilo liburuak: sarearen identitateari, atariei, erabilgarritasunari eta erabilerraztasunari buruzkoak.

2.– Sarearen identitatea bermatzeko arauetan irudi grafiko komuna —sareko atari guztiek partekatuko dutena— zehaztuko da. Aukera emango du, halaber, horietariko bakoitzaren irudi grafikoa transmititzeko. Honako arau hauek beteko dituzte beti sareko atariek:

a) euskadi.net logotipoa erabili beharko dute web orri guztiek, dagokion atariaren beste logotipo identifikagarri batzuk ere erabil daitezkeela. Atari komunarekiko lotura ere jasoko du logotipo horrek.

b) Orri guztiek ikusgai izan beharko dituzten aipamenak: jabego intelektuala; datu pertsonalen babesari aplika dakizkiokeen arauak eta jasotzen dituzten edukien ondoriozko erantzukizunaren mugak eta eragina.

3.– Erabilgarritasun eta erabilerraztasunari buruzko arauek nabigazioa errazteko baldintzak ezarriko dituzte, zeintzuk web orri guztietarako berberak izango baitira eta ondokoa bermatuko baitute beti:

1. El Libro de Estilo de la Red de Portales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi es el conjunto de normas básicas de homogeneización de navegación, contenidos, servicios y aspecto visual que garantizan una imagen común de la red, la identidad común de los distintos portales que la integran y facilitan la navegación y usabilidad de los mismos.

El órgano que tiene atribuida la dirección del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet elaborará el Libro de Estilo cuya aprobación corresponderá al titular del Departamento al que aquél se halle adscrito. En su elaboración se promoverá la participación de los responsables de los distintos portales de la red.

2. El Libro de Estilo será de obligado cumplimiento para todas las páginas web, contenidos o servicios integrados en la Red de Portales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos y con el alcance que en el mismo se determine.

3. El Libro de Estilo será único para todos los portales integrados en la red y estará conformado por las normas de aplicación común a todos los portales y por las normas particulares que sean definidas para cada uno de ellos y que habrán de ser compatibles con las definidas para su cumplimiento por todos los portales de la red. Las normas específicas de cada portal se integrarán como anexo en el Libro de Estilo.

Los portales departamentales, además de cumplir las normas de estilo común a todos los portales de la red, transmitirán la marca corporativa del Gobierno Vasco, de acuerdo con lo establecido en el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco.

*Artículo 21.–* Contenido del libro de estilo.

1. El Libro de Estilo contendrá, al menos, normas referidas a la identidad de la Red, de los distintos portales, a su usabilidad y accesibilidad.

2. Las normas dirigidas a garantizar la identidad de la Red definirán una imagen gráfica común que compartirán todos los portales de la red, permitiendo, a su vez, la transmisión de la imagen gráfica particular de cada uno de ellos. En todo caso, los portales de la Red cumplirán las siguientes normas:

a) Todas las páginas web han de incluir el logotipo de euskadi.net sin perjuicio de la inclusión de otros logotipos identificativos del portal de que se trate. Dicho logotipo incorporará el enlace con el portal común.

b) Todas las páginas contendrán una referencia a la propiedad intelectual, a las normas aplicables a la protección de datos personales y a los límites y extensión de la responsabilidad por los contenidos que incluyan.

3. Las normas de usabilidad y accesibilidad establecerán requisitos dirigidos a facilitar la navegación, que habrán de ser comunes a todas las páginas web y que garantizarán, en todo caso lo siguiente:

a) Erabilgarritasuna: edukiez era errazean eta argian baliatzeko aukera emango du orrien egiturak, helburuak ahalik eta gutxien saiatuta lortu ahal izateko.

Nabigazio arauek nabigazioaren kalitatea ziurtatu beharko dute eta, horri begira, atari edo web orriei aplikatuko zaizkien ebaluazio mekanismoak aipatzeaz gain, era honetako oharrak jasoko dituzte:

- Gehien erabiltzen diren arakatzaileetan orriak bistaratzea berma dadila.
- Loturen jarduera zuzena froga dadila.
- Web orria —era oinarrizkoan— testuinguruan jartzea berma dadila.
- Datu sareekin lotura izan dezaten ekipo eta dispositiboetatik —hainbat kanalen bidez— sartzea berma dezala, estilo liburuak finkatutako moduan eta eraginarekin.

b) Erabilerraztasuna. Denek onartu ohi dituzten Web guneen, nabigatzaileen, aplikazioen eta abarren erabilerraztasun irizpideak —sareko atariek onartu beharrekoak— zehaztuko dira.

4.– Informazioari buruzko arauek Atari Sarean nahitaez sartzeko gutxienezko edukiak bermatuko dituzte. Web orrietan agertutako informazioaren gaurkotasuna eta fidagarritasuna ere bermatuko dira. Horri dagokionez,

a) Sailen, erakunde autonomoen eta Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren antolaketari, eskumenei eta jarduerei buruz atari bakoitzak eskaini behar duen informazioa finkatuko da. Herritarrek eta enpresek burutuko dituzten izapideen oinarrizko baldintzak zehaztuko dira; eta arau aplikagarriak ere erreferentziatuko dira sistema erraz eta eskuragarri baten bidez.

b) Guztientzat interesgarritzat jotzen den informazioaz baliatu ahal izatea erraztuko da, ondorio horretarako egin dadin kategorizazioaren arabera; eta beti baliatu ahal izango da kontratazio administratiboko prozedurez —adieraz dadin moduan eta eraginarekin—, zerbitzuen katalogoez, transakzio telematikorako aukera ematen duten zerbitzuez, eta abarrez. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den arautegiaz baliatzea erraztuko da.

c) Informazioaren ardura duen erakunde edo unitate erantzulea jasoko dira erabakitako moduan, eta behar diren datuak emango dira, bezeroak erakundearekin edo unitatearekin lotura izan ahal dezan.

d) Web orriek denbora erreferentzia izango dute, edukia denbora testuinguru batean atxikiko dutenak.

a) Usabilidad: La estructura de las páginas permitirá al visitante acceder a los contenidos de una manera fácil y clara, de forma que permita alcanzar los objetivos con un mínimo esfuerzo.

Las normas de navegación habrán de asegurar la calidad de la misma y, a tal efecto, además de referirse a los mecanismos de evaluación que se aplicarán a los portales o sitios web, incorporarán indicaciones dirigidas a:

- Garantizar la visualización de las páginas en los navegadores de utilización más extendida.
- Comprobar el correcto funcionamiento de los enlaces.
- Asegurar una básica contextualización de la página web.
- Garantizar, en la forma y con la extensión que determine el Libro de Estilo, el acceso multicanal de los sitios web desde equipos y dispositivos que tengan conectividad con las redes de datos.

b) Accesibilidad. Se determinarán aquellas directrices de accesibilidad de los sitios Web, navegadores, aplicaciones, etc., comúnmente aceptadas que habrán de cumplir los portales de la red.

4. Las normas referidas a la Información garantizarán contenidos mínimos de incorporación obligatoria a la Red de Portales; se asegurará, así mismo, la actualidad y la fiabilidad de la información aparecida en las páginas web. A este respecto,

a) Se establecerá la información que ha de ofrecer cada portal sobre la organización, competencias y actividades de los distintos Departamentos, Organismos Autónomos y del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza/Servicio Vasco de Salud. Se determinarán los requisitos básicos de aquellos trámites que han de llevar a cabo los ciudadanos y las empresas y se referenciarán las normas aplicables mediante un sistema sencillo y accesible.

b) Se facilitará el acceso a la información considerada de interés general, de acuerdo con la categorización que a tal efecto se realice y, en todo caso, a los procedimientos de contratación administrativa en la forma y con la extensión que se determine, al catálogo de servicios, a los servicios que permiten transacción telemática, etc. Se facilitará el acceso a la normativa que se publique en el Boletín Oficial del País Vasco.

c) Se incluirá, en la forma en que se determine, el organismo o unidad responsable de la información y se ofrecerán los datos necesarios para que el usuario pueda contactar con el organismo o unidad.

d) Las páginas web contendrán una referencia temporal que permita situar su contenido en un contexto de tiempo.

*22. artikulua.*– Katalogazio Ildo Nagusiak.

1.– Edukiak eta zerbitzuak antolatzeko aurrez zehaztutako irizpideak dira Katalogazio Ildo Nagusiak. Sareko edozein atari eta aurkikuntza patroi komunak erabiliz balia daiteke beroietaz. Atari bakoitzean aurkez daitezke helburu jakin bati, gai bati edo beste irizpideren bati lotuta.

2.– Katalogazio Ildo Nagusiak finkatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Internet-n duen presentzia eredua zuzentzeko eskumena duen organoari dagokio. Sareko atarietako arduradunek parte hartuko dute eginkizun hori sustatzen.

3.– Atari bakoitzak katalogazio ildo bereziak izan ditzake bere eduki eta zerbitzuetarako eta, halaber, bere menpeko atarietarako.

*23. artikulua.*– Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegia.

1.– Atari Sarearen jarduera eratua eta eraginkorra bermatzea da Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegiaren helburua. Honako hauek zehaztuko ditu: sistemaren antolaketa eta baliabide beharrezkoak; edukien eta zerbitzuen kalitate- eta homogeneitate-baldintza gutxienezkoak; horiek atxiki, mantendu eta eguneratzeko baldintzak; eta, azkenik, atari berriak sortzeko prozedura.

2.– Ereduaren zuzendaritza bereganaturik duen organoak Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegia gertatuko du sareko atarietako arduradunekin batera. Organo hori atxikita dagoen Saileko titularrari dagokio arautegia onartzea.

*24. artikulua.*– Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegiaren edukia.

1.– Atari Sarea mantentzeko behar diren baliabideei eta antolaketarako oinarrizko irizpideei buruzkoak izango dira Antolaketa Arauak.

2.– Sareko atarietan lau antolaketa-rol egongo dira, gutxienez: atariko arduraduna, edukien editorea, katalogatzailea eta edukiak onartzeko arduraduna. Eginkizunak:

a) Atariko arduraduna:

- Interneteko presentzia eredua kudeatzeaz arduratuko den organoarekiko interlokuzioa.
- Sistemaren elementu komunak berari dagokion atari-eremuan bete daitezen bermatu.
- Atari sarearen definizioa eta mantentzea, atariko elementu dinamikoak kudeatu eta eguneratzea (berritasunak, elementu esanguratsuak, banner-ak, eta beste hainbat).

*Artículo 22.*– Ejes generales de catalogación.

1. Los Ejes Generales de Catalogación son criterios predeterminados de organización de los contenidos y servicios que permiten acceder a los mismos desde cualquiera de los portales de la red utilizando patrones comunes de búsqueda, y presentarlos en cada portal asociados a un público objetivo, a una materia o a cualquier otro criterio existente.

2. La determinación de los Ejes Generales de Catalogación corresponderá al órgano que tiene atribuida la dirección del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet y en su definición se promoverá la participación de los responsables de los distintos portales de la red.

3. Cada portal podrá tener ejes de catalogación particulares para los contenidos y servicios propios del mismo, así como para los de los portales de él dependientes.

*Artículo 23.*– Normativa de organización y funcionamiento.

1. La Normativa de Organización y Funcionamiento tiene por objeto garantizar un funcionamiento ordenado y eficiente de la Red de Portales y definirá la organización y recursos necesarios del sistema, los requisitos mínimos de calidad y homogeneidad de los contenidos y servicios, las condiciones para su incorporación, mantenimiento y actualización, así como el procedimiento para la creación de nuevos portales.

2. El órgano que tiene atribuida la dirección del modelo elaborará, con la participación de los responsables de los distintos portales de la red, la Normativa de Organización y Funcionamiento cuya aprobación corresponderá al titular del Departamento al que aquél se halle adscrito.

*Artículo 24.*– Contenido de la normativa de organización y funcionamiento.

1. Las Normas de Organización se referirán a los recursos necesarios para el mantenimiento de la Red de Portales y a los criterios básicos de organización.

2. En todos los portales de la red se distinguirán, al menos, cuatro roles organizativos: responsable de portal, editor de contenidos, catalogador y responsable de aprobar contenidos, a los que corresponderán las siguientes funciones:

a) Responsable de portal:

- Interlocución con el órgano responsable de la gestión del Modelo de presencia en Internet.
- Garantizar el cumplimiento de los elementos comunes del sistema en el ámbito de su portal.
- Definición y mantenimiento de la estructura del portal, gestión y actualización de los elementos dinámicos del portal (novedades, elementos destacados, banners, etc.).

- Bezeroen kudeaketa; edukiak editatzeko eta onartzeko jardueren koordinazioa.
- Argitaratutako edukiak gainbegiratzea eta ataria etengabe hobetzea.

b) Edukiak onartzeko arduraduna: edukiak onartu, eta gero argitaratu.

Edukiak onartzeaz arduratuko den bat egongo da organo bakoitzeko, zein unitatearen beren-beregiko edukiak uneoro eguneratzeaz arduratuko baita.

c) Edukien editorea: jarduera-eremu bateko edo hainbateko edukiak erredaktatzea, gertatzea eta mantentzea, Estilo Liburuan ezarritako harien eta gomendioen arabera.

d) Katalogatzailea: edukiei etiketa semantikoak izendatzea, aldez aurretik definitutako taxonomietan oinarrituz; helburua: aurkikuntza aukerak areagotzea eta arau automatikoen bidez web orrietan aurkeztu ahal izatea.

3.– Edukien kalitate- eta homogeneitate-errekerimenduak bermatzeko prozedura eta atari berriak sortzeko prozedura jarduera arauek ezarriko dituzte.

Honako fase hauek hartuko ditu: informazioa frogatzea, kalitatea jatorrian ziurtatzeko; informazioa atalka sailkatzea eta Katalogazio Ildo Nagusiak egokitzea; eduki berriak lantzea eta egon daudenak aldatzea; eduki transakzionala duten eduki-zerbitzuak sartzea; eta beste hainbat. Informazioa eguneratzeko baldintzak ezarriko dituzte; eta, halaber, informazioaren, edukien eta eskainitako zerbitzuen fidagarritasuna, osotasuna eta egunerokotasuna bermatuko dituzten gainerako baldintzak.

*25. artikulua.*– Sistemaren elementu komunen publizitatea.

Sistemako elementu komunen informazioa eta publizitatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta, hala behar bada, bere erakunde autonomoen eta Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren Intranet-en emango da modu etengabean, komunikatzeko beste mekanismo batzuk ere erabil daitezkeen arren, aipatu erakundeetako pertsonalak elementu horien berri izan dezan.

LAUGARREN KAPITULUA
DOMEINUAK

*26. artikulua.*– Domeinu politika.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren domeinu politika orekatsua izango da Atari Sareko egiturarekin. Eraketa hierarkizatua izango du.

2.– euskadi.net izango da goi-mailako domeinua; eta horretan oinarrituta eta horrekiko lotura dutela, uneanuneko azpi-domeinuak eratuko dira.

- Gestión de usuarios; coordinación de las actividades de edición y aprobación de contenidos.
- Supervisión de los contenidos publicados y mejora continua del portal.

b) Responsable de aprobar contenidos: aprobación de los contenidos para su publicación.

En cada órgano existirá un responsable de aprobar contenidos, que velará por la actualización permanente de los contenidos específicos de la unidad.

c) Editor de contenidos: redacción, elaboración y mantenimiento de los contenidos de una o varias áreas de actuación, de acuerdo con las pautas y recomendaciones establecidas en el Libro de Estilo.

d) Catalogador: asignación de etiquetas semánticas a los contenidos, en base a unas taxonomías predefinidas, con objeto de enriquecer sus posibilidades de búsqueda y permitir su presentación en las páginas web mediante reglas automáticas.

3. Las Normas de Funcionamiento establecerán el procedimiento dirigido a garantizar los requerimientos de calidad y homogeneidad de los contenidos, así como el procedimiento para la creación de nuevos portales.

Se extenderán, al menos, a las fases de comprobación de la información para asegurar su calidad en origen, a la clasificación de la información departamental y adaptación a los ejes generales de catalogación, a la incorporación de nuevos contenidos, modificación de los existentes, a la introducción de servicios de contenido transaccional, etc. Establecerán, en su caso, los requisitos de actualización de la información y cualesquiera otros que garanticen la fiabilidad, integridad y actualidad de la información, de los contenidos y servicios ofertados.

*Artículo 25.*– Publicidad de los elementos comunes del sistema.

De los elementos comunes del sistema se informará y dará publicidad permanente en la intranet de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y, en su caso, en la de sus Organismos Autónomos y en la del Ente Público de derecho privado Osakidetza/Servicio Vasco de Salud, sin perjuicio de la utilización de otros mecanismos de comunicación dirigidos a garantizar su conocimiento por el personal de aquéllos.

CAPÍTULO CUARTO
LOS DOMINIOS

*Artículo 26.*– La política de dominios.

1. La política de dominios de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi mantendrá la adecuada coherencia con la estructura de la Red de Portales. Su ordenación será jerarquizada.

2. euskadi.net se constituye en el dominio de nivel superior, a partir del cual y vinculado al mismo, se ordenarán los subdominios existentes en cada momento.

*27. artikulua.–* Domeinuak erregistratzea.

1.– Honako baldintza hauetakoren bat gertatuz gero erregistratu ahal izango dira domeinu berriak:

a) Nortasun juridiko propioko erakunde bati dagokiola domeinuaren izena esleitzea.

b) Domeinuaren izena erregistratutako marka bati dagokiona izan dadila, eta marka horren titularra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, erakunde autonomoren bat edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren bat izan dadila, eta marka horrek identifikazio gaitasun intuitiboa izan dezala zerbitzu, eduki edo atari jakin batekiko, batik bat dekretu hau aplikatzerakoan finka daitezen alorrekiko.

c) Domeinuaren izenak identifikazio gaitasun intuitibo argia izan dezala herritarrentzat, dekretu hau aplikatzerakoan definitutako alorren batekiko, hain zuzen ere.

d) Domeinu izena kontratatzearen helburua erabilera ez egokiak saihestea izan dadila; batik bat, honako hauek: gobernu organoek karguan aritzearekin zerikusirik ez duten jarduerekin duten lotura eragoztea, Eusko Jaurlaritzaren eskumen esparruan betetako egiteko edo zerbitzuetan nahaspila saihestea eta EAEren irudi instituzionala zaintzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia ereduaren zuzendaritza bereganatuta duen organoaren aurrean frogatu beharko dira aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak. Organo horrek emango du txostena, hain zuzen ere, domeinu izena erregistratzeko dagokion erregistro entitatearen aurrean egindako eskabidea baino lehen. Txostena loteslea izango da domeinu izenen erreserba egiteko eskumena bereganatua duen organoarekiko, eta eskatutako kontratazioaren bideragarritasunari buruzko erabakia hartuko du.

3.– Kontratatutako domeinuek euskadi.net domeinuaren izenarekin betetako web zerbitzuetako helbideen bidez birbideratuko dituzte eskabideak.

Aurreko 1. paragrafoko d) letran xedatutakoaren arabera kontratatutako domeinuak euskadi.net domeinura birbideratzea ziurtatuko dute bai, baina edukiak edo zerbitzuak eurei atxikita badituzte bakarrik.

4.– Goragoko domeinuko azpi-domeinuak dagozkien atarien eraketa arauz ezarriko da, arauz zehaztuko diren moduan azpi-domeinuen izenak finkatzeko irizpideak; eta finkatuko dira, halaber, euskadi.net domeinura birbideratzeak bete behar dituen baldintzak. Eta arauz jarriko dira egon dauden kategorietan erregistratzeko irizpideak, hots, lurraldekako domeinuetan eta bigarren edo hirugarren mailetan erabiliko direnak.

*Artículo 27*.– Registro de dominios.

1. Podrán registrarse nuevos dominios cuando concurra alguna de los requisitos siguientes:

a) Que la asignación del nombre de dominio corresponda a un organismo con personalidad jurídica propia.

b) Que el nombre de dominio corresponda a una marca registrada de la que sea titular la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o alguno de sus Organismos Autónomos o Entes Públicos de Derecho Privado y que la misma tenga capacidad de identificación intuitiva con un determinado servicio, contenido o portal, particularmente con los referidos a alguna de las áreas temáticas que se determinen en aplicación de este Decreto.

c) Que el nombre de dominio tenga una clara capacidad de identificación intuitiva para el ciudadano con alguna de las áreas temáticas definidas en aplicación de este Decreto.

d) Que la contratación del nombre de dominio se halle dirigida a evitar usos inapropiados; en particular, tendrán esta consideración aquellos dirigidos a impedir la vinculación de los órganos de Gobierno con actividades que no guarden relación con el ejercicio del cargo, los dirigidos a evitar confusión acerca de las funciones o de los servicios prestados en el ámbito de las competencias del Gobierno Vasco y los dirigidos a preservar la imagen institucional de Euskadi.

2. La concurrencia de los requisitos señalados en el apartado anterior habrá de acreditarse ante el órgano que tenga atribuida la dirección del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet, quien emitirá informe con anterioridad a la solicitud de registro del nombre de dominio ante la entidad de registro que corresponda. El informe, que tendrá carácter vinculante para el órgano que tenga atribuida la competencia para efectuar la reserva de nombres de dominio, se pronunciará sobre la procedencia de la contratación solicitada.

3. Los dominios contratados asegurarán el redireccionamiento de las peticiones a los servicios web prestados bajo el nombre de dominio euskadi.net.

Los dominios contratados en virtud de lo dispuesto en la letra d) del apartado 1 anterior, asegurarán el redireccionamiento al dominio euskadi.net únicamente en el caso de que a los mismos se hallen vinculados contenidos o servicios.

4. Reglamentariamente se establecerá la ordenación de aquellos portales a los que corresponden subdominios del dominio de nivel superior, se definirán los criterios para la determinación de los nombres de los subdominios y se fijarán los requisitos que ha de cumplir el redireccionamiento al dominio euskadi.net, así como los criterios de registro en las distintas categorías existentes, en la utilización de dominios territoriales y en los de segundo o tercer nivel.

*28. artikulua.*– Sareko atarien eta domeinu izenen publizitatea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren atarien publizitateak, domeinua kontratua izan edo ez, euskadi.net-en menpeko azpi-domeinuari —esleituta dutenari— egin beharko dio erreferentzia.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, beren-beregiko azpi-domeinurik ez dagokien atarien publizitateak euskadi.net-i lotutako helbide elektronikoa —hor kokatuko baita dagokion ataria— aipatu beharko du beti.

BOSGARREN KAPITULUA
ANTOLAKETA EGITURA

*29. artikulua.*– Antolaketa eta eginkizunen banaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Atari Sareari buruzko jarduerak, hurrengo artikuluetan aditzera emango diren eginkizun banaketaren arabera, ondoren aipatzen diren administrazio-atalek burutuko dituzte: Lehendakaritza Saileko Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiak; Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzak; Lehendakaritza eta Herri Ogasun Saileko Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak; eta dekretu honen aplikazio eremua osatzen duten gainerako organoek.

*30. artikulua.*– Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia.

Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren eginkizunak:

1.– EAEk Interneten izan behar duen irudi instituzionalaren estrategia zehaztea.

2.– Jaurlaritzaren informazio- eta komunikazio-politika ezarri, diseinatu eta zuzendu Interneten bidez. Beharrezkotzat jotzen diren irizpideak eta mekanismoak ezarriko dira, Eusko Jaurlaritzaren atarietako politikaren koordinazioa bermatuko dutenak.

3.– Euskadiren historia, kultura, hizkuntza, erakundeak, gizartea, politika, ekonomia eta bestelakoak aurkezteko irizpideak ezarri eta edukiak diseinatu eta, hala behar bada, gertatu.

4.– «Euskadi.net» indartzea helburu duten publizitate kanpainak eta gizartea sentsibilizatzeko neurriak diseinatu, zuzendu eta, behar izanez gero, koordinatu, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzarekin batera, ahaleginak eginaz horren berri herritarrek, enpresek eta gainerako taldeek izan dezaten.

*Artículo 28.*– Publicidad de los portales de la red y de los nombres de dominio.

1. La publicidad de los distintos portales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tengan o no contratado un dominio, deberá hacer referencia al subdominio dependiente de euskadi.net, que tengan otorgado.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la publicidad de aquellos portales a los que no correspondiera un subdominio propio hará referencia en todo caso a la dirección electrónica vinculada a euskadi.net en la que se sitúa el portal de que se trate.

CAPÍTULO QUINTO
ESTRUCTURA ORGANIZATIVA

*Artículo 29.*– Organización y distribución de funciones.

Las actuaciones referidas a la Red de Portales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi se llevarán a cabo, de acuerdo a la distribución de funciones señalada en los artículos siguientes, por la Secretaría General de Comunicación, adscrita al Departamento de Presidencia del Gobierno; por la Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa, adscrita del Departamento de Vicepresidencia del Gobierno, por la Dirección de Informática y Telecomunicaciones y por la Dirección de Patrimonio y Contratación, adscritas al Departamento de Hacienda y Administración Pública y por el resto de órganos que conforman el ámbito de aplicación de este Decreto.

*Artículo 30.*– Secretaría General de Comunicación.

Corresponderán a la Secretaría General de Comunicación de la Presidencia del Gobierno las funciones siguientes:

1. Definir una estrategia de imagen institucional de Euskadi en Internet.

2. Establecer, diseñar y dirigir la política informativa y de comunicación del Gobierno a través de Internet, estableciendo los criterios y mecanismos necesarios que aseguren la coordinación de dicha política en los distintos portales del Gobierno Vasco.

3. Establecer criterios, diseñar y, en su caso, elaborar los contenidos dirigidos a presentar Euskadi en los aspectos históricos, culturales, lingüísticos, institucionales, etc., así como su realidad social, política y económica.

4. Diseñar, dirigir y, en su caso, coordinar, en colaboración con la Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa, las campañas publicitarias y medidas de sensibilización social que tengan por objeto potenciar «euskadi.net», promoviendo su conocimiento por la ciudadanía, las empresas y demás colectivos a los que se dirige.

*31. artikulua.*– Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritza.

Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia eredua zuzentzea, antolatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, aintzat hartuz, halaber, dekretu honetan beste organo batzuei esleitzen zaizkien eginkizunak. Batik bat, honako hauek dagozkio:

1.– Helburu jakineko eta alorkako atariak zehaztea.

2.– euskadi.net atariaren eta hartzailearen arabera definitutako helburu jakineko atarien kudeaketa eta mantentzea.

3.– Zerbitzu Horizontalak deklaratzea.

4.– Estilo Liburua eta Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegia gertatzea.

5.– Edukiak eta zerbitzuak atarietan antolatzeko Katalogazio Ildo Nagusiak definitzea.

6.– Erabilera Komuneko Tresnek eta Aplikazioek dituzten funtzionalitateak definitzea.

7.– Dekretu honetan xedatutakoa betetzen den —edo ez— gainbegiratu eta zaintzea. Sarea osatzen duten atarien auditoriak burutuko dira, eta emaitzen berri dagokion Sailari emango zaio. Hobetzeko neurriak proposatuko dira, behar izanez gero.

8.– Atarien Sareari atxikitako zerbitzuen kalitatea ebaluatzea. Helburu horretarako, jarduteko instrukzio orokorrak eman ditzake eta unean-unean egokienak jotzen dituen neurriak proposatu ahal izango ditu eskainitako zerbitzuak hobetzeko.

9.– Zerbitzu berriak sustatzea Interneten bidez.

*32. artikulua.*– Informatika y Telekomunikazio Zuzendaritza.

Honako eginkizun hauek dagozkio Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzari:

1.– Internet sarerako sarrera eta lotura administratu, kudeatu eta mantentzea.

2.– Interneten sartzeko zerbitzuak kontratatzea; eta, halaber, erabilera komuneko orriak eta aplikazioak, eta kudeaketa zentralizatuko atariak albergatzeko zerbitzuak kontratatzea.

3.– Esparru teknologiko normalizatua, homogeneoa, ziurra eta uneoro eguneratuta dagoena bermatuko duten irizpide teknikoak eta gomendioak ezartzea. Eta, batik bat, dekretu honen aplikazio eremua osatzen duten orri, web gune edo atariek euskadi.net-ekin lotura izateko aukera emango duten baldintza teknikoak eta teknologikoak finkatzea.

*Artículo 31.*– Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa.

Corresponderá a la Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa, la dirección, organización, coordinación y supervisión del modelo de presencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Internet, sin perjuicio de las funciones que en este Decreto se atribuyan a otros órganos. En particular, le corresponde:

1. La determinación de los portales de público objetivo y de área temática.

2. La gestión y mantenimiento del portal euskadi.net y de los portales de público objetivo definidos por destinatario.

3. La declaración de los Servicios Horizontales.

4. La elaboración del Libro de Estilo y de la Normativa de Organización y Funcionamiento.

5. La definición de los Ejes Generales de Catalogación en que han de organizarse los contenidos y servicios en todos los portales.

6. La definición de las funcionalidades de las Herramientas y Aplicaciones de Uso Común.

7. Supervisión y control del cumplimiento de lo dispuesto en este Decreto. A tal efecto, realizará auditorias de los distintos portales integrantes de la Red, de cuyos resultados dará conocimiento al Departamento competente y en las que se propondrán medidas de mejora.

8. La evaluación de la calidad de los servicios incorporados a la Red de Portales a cuyos efectos podrá dictar instrucciones generales de funcionamiento y proponer las medidas que en cada momento se consideren más convenientes para la mejora de los servicios ofertados.

9. El impulso y promoción de nuevos servicios a través de Internet.

*Artículo 32.*– Dirección de Informática y Telecomunicaciones.

Corresponderá a la Dirección de Informática y Telecomunicaciones las siguientes funciones:

1. La administración, gestión y mantenimiento del acceso y enlace con la red Internet.

2. La contratación de los servicios de acceso a Internet, así como de albergue de páginas y aplicaciones de uso común y de los portales de gestión centralizada.

3. El establecimiento de los criterios técnicos y recomendaciones que aseguren un marco tecnológico normalizado, homogéneo, seguro y permanentemente actualizado. En particular, la fijación de los requisitos técnicos y tecnológicos que permitan el enlace con euskadi.net de las distintas páginas, sitios web o portales que conforman el ámbito de aplicación de este Decreto.

4.– Erabilera komuneko tresna eta aplikazioek bete behar dituzten arauak eta estandar informatikoak definitzea eta, hala behar badu, horien garapen informatikoa.

5.– Segurtasun politikak definitu eta artatzea.

6.– Web guneak birbideratzen eta azpi-domeinuak goi-mailako domeinuari atxikitzen erabili behar diren irizpide teknikoak ea teknologikoak definitzea.

7.– Erabilera komuneko aplikazio eta tresnen jarduera zuzena egiaztatzea.

*33. artikulua.–* Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari dagokio: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko ente publikoek egin dezaten Interneteko domeinu-izenen erreserba.

*34. artikulua.–* Eusko Jaurlaritzako sailak, erakunde autonomoak eta Osakidetza zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Eusko Jaurlaritzako sailari, erakunde autonomoei eta Osakidetza zuzenbide pribatuko ente publikoari dagozkien eginkizunak:

1.– Internet sarean zerbitzuak sartzea eta edukiz hornitzea, dekretu honetan aditzera emandako koordinazio-printzipio eta –irizpideekin bat etorriz. Ondorio horietarako, sail bakoitzari atxikitako organoek euren eremuko edukiz hornituko dute Internet, zeintzuk aukera emango baitute Interneten bidez edukiak eta zerbitzuak modu osotuan, eguneratuan eta fidagarrian eskaintzeko.

2.– Sailetako edo entitate publikoetako atariak eta alorka definitutako atariak administratu eta kudeatzea. Alor batek sail, erakunde autonomo edo ente publiko bati baino gehiagori eragiten badie, kasuan kasuko alorra osatzen duten gairik gehienak bere eskumenean hartzen dituen sailak bereganatuko du kudeaketa- eta mantentze-eginkizunen koordinazioa. Inplikatutako sail eta entitate guztiek parte hartuko dute, beti, kudeaketan.

3.– Egotz dakizkion Zerbitzu Horizontalen kudeaketa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.–* Eusko Jaurlaritzako sailen, erakunde autonomoen eta Osakidetza zuzenbide pribatuko ente publikoaren atariak dekretu honetan jasotako arauei egokitu beharko zaizkie urtebeteko epean, dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera.

4. La definición de la normativa y estándares informáticos que deben cumplir las herramientas y aplicaciones de uso común y, en su caso, el desarrollo informático de las mismas.

5. Definición y vigilancia de las políticas de seguridad.

6. La definición de los criterios técnicos y tecnológicos que han de seguirse en el redireccionamiento de sitios web y en la vinculación de los distintos subdominios al dominio de nivel superior.

7. Verificar el correcto funcionamiento de las aplicaciones y herramientas de uso común

*Artículo 33.–* Dirección de Patrimonio y Contratación.

Corresponderá a la Dirección de Patrimonio y Contratación la reserva de nombres de dominio en Internet que efectúe la Administración General de la Comunidad Autónoma, sus Organismos Autónomos y entes públicos de derecho privado.

*Artículo 34.–* Los Departamentos del Gobierno Vasco, los Organismos Autónomos y el Ente Público de Derecho Privado Servicio Vasco de Salud-Osakidetza.

Corresponderá a los distintos Departamentos, Organismos Autónomos y al Ente Público de Derecho Privado Servicio Vasco de Salud-Osakidetza las funciones siguientes:

1. La introducción de servicios en la red Internet y la provisión de contenidos de acuerdo con los principios y criterios de coordinación fijados en este Decreto. A tales efectos, los órganos adscritos a cada uno de los Departamentos proveerán de aquellos contenidos referidos al ámbito de sus competencias que permitan proporcionar a través de Internet contenidos y servicios de manera integral, actualizada y fiable.

2. La administración y gestión de los portales departamentales o de entidad pública y los portales definidos por áreas temáticas. En aquellos casos en que el área temática afecte a más de un Departamento, organismo autónomo o ente público, asumirá la coordinación de las funciones de gestión y mantenimiento aquel Departamento que extienda su competencia a un mayor número de materias de las que integran el área temática de que se trate. En cualquier caso, en la gestión participarán todos los Departamentos y entidades implicados.

3. La gestión de los Servicios Horizontales que les sean encomendados.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Los portales de los Departamentos, Organismos Autónomos y del Ente Público de Derecho Privado Servicio Vasco de Salud/Osakidetza deberán adecuarse a la regulación contenida en este Decreto en el plazo de un año desde la entrada en vigor de este Decreto.

*Bigarrena.–* Jaurlaritzaren lehendakariordeak Jaurlaritzari bidaliko dizkio, dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera hiru hileko epearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek eta Osakidetza zuzenbide pribatuko ente publikoak erreserbatutako domeinu izenen mantentze egitasmoa. Egitasmo horrek egoeraren diagnosia egingo du, bete behar diren helburuak finkatu eta baja hartuko duten domeinuak ezarriko ditu. Interesa izan dezaten organo guztiek parte hartuko dute horiek prestatzen.

*Hirugarrena.–* Estilo Liburua, Antolaketa- eta Funtzionamendu-Arautegia eta Katalogazio Ildo Nagusiak hiru hileko epean onartuko dira, dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera.

*Laugarrena.–* Dekretu honetan jasotako arauak otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuko (informazio eta telekomunikazio sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen ditu) lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aintzat hartuz ulertuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.–* Zuzenbide pribatuko ente publikoetako web guneak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetza gehiengoa deneko sozietateetako web guneak, dekretu honetako 2. artikuluan aurreikusitakoa arauz garatzen ez den bitartean, aplikagarriak diren arauei jarraiki eraenduko dira. Beharrezkoa izango da euskadi.net logotipoa erabiltzea eta antolaketa komuneko atariarekiko lotura eranstea.

*Bigarrena.–* Dekretu honetako 27. artikuluan zehaztutako irizpideak erabiliko dira dekretu honek indarra hartzerakoan kontratatuturik zeuden domeinuak mantentzeko.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Garapena.

Baimena ematen zaio Jaurlaritzaren lehendakariordeari eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari —dekretu honetan agindutakoa garatu eta exekutatu asmoz— xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Indarra hartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko ekainaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzako lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

*Segunda.–* La Vicepresidenta del Gobierno remitirá al Gobierno en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de este Decreto el plan de mantenimiento de los nombres de dominio reservados por la Administración General de la Comunidad Autónoma, sus Organismos Autónomos y por el Ente Público de Derecho Privado Osakidetza/Servicio Vasco de Salud. El citado Plan incorporará un diagnóstico de situación, fijará los objetivos a cumplir y determinará los dominios que causarán baja; en su elaboración se dará participación a todos los órganos interesados.

*Tercera.–* El Libro de Estilo, la Normativa de Organización y Funcionamiento y los Ejes Generales de Catalogación se aprobarán en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de este Decreto.

*Cuarta.–* Las normas contenidas en el presente Decreto se entenderán sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición adicional primera del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* En tanto no se dicten las disposiciones previstas en el artículo 2 de este Decreto, los sitios web de los entes públicos de derecho privado y de las sociedades en cuyo capital sea mayoritaria la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi se regirán por las normas que les sean de aplicación, debiendo incluir el logotipo de euskadi.net que incorporará el enlace con el portal de organización común.

*Segunda.–* El mantenimiento de los dominios contratados a la fecha de entrada en vigor de este Decreto seguirá los criterios definidos en el artículo 27 de este decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo.

Se autoriza a la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública a dictar cuantas disposiciones en desarrollo y ejecución de lo dispuesto en este Decreto.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

EKAINAREN 8KO 108/2004 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

HELBURU JAKINEKO ATARIAK ETA ALORKAKO ATARIAK

1) HELBURU JAKINEKO ATARIAK

- Pertsonak
- Enpresak
- Administrazioak

2) ALORKAKO ATARIAK

- Etengabeko ikasketa
- Justizia Administrazioa
- Enplegua
- Gazteria
- Osasuna
- Herritarren segurtasuna
- Gizarte zerbitzuak
- Informazioko gizartea
- Turismoa
- Etxebizitza

EKAINAREN 8KO 108/2004 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

ZERTBITZU HORIZONTALAK ETA KUDEAKETA ORGANOAK

Zerbitzu horizontala
Pertsonalizatze zerbitzua
Iradokizunen eta kontsulten gutunontziaren zerbitzua
Jakinarazpen eta helbide elektronikoaren zerbitzua
Ordainketa telematikoaren zerbitzua

Erlazionatutako zerbitzu horizontalen kudeaketaz Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritza arduratuko da; ez, ordea, ordainketa telematikoko zerbitzuaz, Finantza Zuzendaritzari baitagokio horren kudeaketa.

ANEXO I AL DECRETO 108/2004, DE 8 DE JUNIO.

PORTALES DE PÚBLICO OBJETIVO Y PORTALES DE ÁREA TEMÁTICA

1) PORTALES DE PÚBLICO OBJETIVO

- Personas
- Empresas
- Administraciones

2) PORTALES DE ÁREA TEMÁTICA

- Aprendizaje permanente
- Administración de Justicia
- Empleo
- Juventud
- Salud
- Seguridad Ciudadana
- Servicios Sociales
- Sociedad de la Información
- Turismo
- Vivienda

ANEXO II AL DECRETO 108/2004, DE 8 DE JUNIO.

SERVICIOS HORIZONTALES Y ÓRGANOS GESTORES

Servicio Horizontal
Servicio de personalización
Servicio de buzón de sugerencias y consultas

Servicio de notificación y dirección electrónica
Servicio de pago telemático

La gestión de los servicios horizontales relacionados corresponderá a la Dirección de la Oficina para la Modernización Administrativa, salvo el servicio de pago telemático cuya gestión corresponderá a la Dirección de Finanzas.

EKAINAREN 8KO 108/2004 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

ERABILERA KOMUNEKO APLIKAZIOAK ETA TRESNAK

| Aplikazioa edo tresna | Estandarra |
|---|---|
| Sistema eragilea | Linux Red-Hat (2.1 edo 3.0) |
| Aplikazio zerbitzaria | BEA Weblogic Server 8.1 |
| Integrazio zerbitzaria | BEA Weblogic Server 8.1 |
| Edukiak kudeatzeko tresna | Interwoven 6.x |
| Katalogazio tresna | |
| Edukiak inbentariatzeko tresna | |
| Edukiak lotzeko tresna | |
| Edukiei buruzko aldaketen historikoaren mantentze tresna | |
| Atariak kudeatzeko tresna | Ikus-osagai birrerabilgarrien Framework-a. |
| Testu osoko bilatzailea | |
| Estatistika tresna | |
| Datu basea | Oracle 9.x |
| Nabigatzaileak | MS Explorer<br>Netscape / Mozzilla |
| HTML iturburu estandarrak | CSS 2.0 eta XHTM |
| Iradokizun eta kontsulta gutunontziaren kudeatzailea | |
| Bezeroak kudeatzeko tresna | |

*ANEXO III AL DECRETO 108/2004, DE 8 DE JUNIO.*

*APLICACIONES Y HERRAMIENTAS DE USO COMÚN*

| *Aplicación o Herramienta* | *Estándar* |
|---|---|
| *Sistema Operativo* | *Linux Red-Hat (2.1 o 3.0)* |
| *Servidor de Aplicaciones* | *BEA Weblogic Server 8.1* |
| *Servidor de Integración* | *BEA Weblogic Integration 8.1* |
| *Herramienta de gestión de contenidos* | *Interwoven 6.x* |
| *Herramienta de Catalogación* | |
| *Herramienta de inventariado de contenidos* | |
| *Herramienta de vinculación de contenidos* | |
| *Herramienta de mantenimiento del histórico de modificaciones sobre los contenidos* | |
| *Herramienta de gestión de Portales* | *Framework de componentes visuales reutilizables* |
| *Buscador en texto completo* | |
| *Herramienta de Estadísticas* | |
| *Base de Datos* | *Oracle 9.x* |
| *Navegadores* | *MS Explorer*<br>*Netscape / Mozzilla* |
| *Estándares de fuentes HTML* | *CSS 2.0 y XHTM* |
| *Gestor de buzón de sugerencias y consultas* | |
| *Herramienta de gestión de usuarios* | |